

08-7-17. Esleipenak BEREZIA.

Esleipenak egutegia

informazio

UZTAILAREN 14tik 18ra	ORDEZKODAK ordezkapenari uko egiteko epea.
UZTAILAREN 21ean	haurreskolak.net web orrian (albisteen atalean), abuztuaren 27ko esleipenetan eskainiko diren lanpostu berrien behin behineko zerrenda jarriko da ikusgai
UZTAILAREN 22tik 23ra	PLAZADUNAK uko egiteko lehenengo aukera. Horretarako Haurreskolako web orrian eskegitako ereduia (eta guk atxikitutakoa) fax-ez (943821755 eta 943821903) bidali behar dute edo Eibarko egoitzan (9etatik 14:00ak arte) aurkeztu bi egun horietan.
UZTAILAREN 28an	Zerrendak aterako dira (esleipenean aterako diren behin behineko lanpostu guztien zerrenda eta uko egitearen ondorioz libre geratu direnak barne).
ABUZTUAREN 20an	Arratasaldeko 14:00etatik aurrera, <u>haurreskolak.net web orrian</u> sortu diren plazak jarriko dira.
ABUZTUAREN 21etik 22ra	PLAZADUNAK <u>Lanpostuari uko</u> egiteko 2. aukera. Horretarako Haurreskolako web orrian eskegitako ereduia (guk atxikitutakoa) fax-ez (943821755 eta 943821903) bidali behar dute edo Eibarko egoitzan aurkeztu bi egun horietan goizeko 9:00etatik 14:00etara. (abuztuaren 22a Bilbon jai eguna dela kontuan hartu) Epe horren barruan lanpostuari uko egiten ez badiote, ezin izango dute esleipenean parte hartu.
ABUZTUAREN 25ean	<u>Behin betiko zerrendak.</u> (esleipenean aterako diren lanpostu guztien zerrenda eta uko egitearen ondorioz libre geratu direnak barne). Erabilgarri egoeran jartzeko azken eguna.
ABUZTUAREN 26an	Aurreko egunetik eguadiako 13:00tak arte <u>erreklamazio epea</u> . Faxez bidalitako ukoen inguruko erreklamazioak onartzeko beharrezkoa izango da faxaren berrespena aurkeztea. Erreklamazioa Partzuergoko web orrian argitaratuko den erreklamazio ereduian egingo da eta Haurreskolak Partzuergoaren egoitzan pertsonalki edo beste hirugarren batek eskuz aurkeztu beharko du. Ez da faxez edo korreo elektronikoz heltzen den erreklamaziorik onartuko.
ABUZTUAREN 27an	ESLEIPEN eguna. 9:00etan SUPRIMITUEN eta beren PLAZARI UKO egin diotenen parte hartuko dute. 10:30etan plaza hutsak betetzeko bertan hezitzaile zerrenda integratua eta barematu gabeko izangaiak parte hartu ahal izango dute.

www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA: 13 Marengo karrika

t1. 05 59 59 50 20 • fax 03 59 59 50 21

baiona@labsindikatua.org

BILBO: Rekalde Zumarkalea 62, 48010

t1. 94 470 69 26 • fax 94 470 69 09

irakaskuntzabizkaia@labsindikatua.org

DONOSTIA: San Bladi 1, 20011

t1. 943 45 85 62 • fax 943 47 27 09

irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org

GASTEIZ: Bueno Monreal 10, 01001

t1. 945 25 95 44 • fax 945 25 80 39

irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org

IRUÑEA: M. Zelaieta 75 2A atea, 31014

t1. 948 38 24 74 • fax 948 22 12 76

irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org

08-7-17. Esleipenak BEREZIA.

OHAR GARRANTZITSUAK

Ordezkapen Zerrendan behin behineko baja egoeran daudenak esleipenetan parte hartzeko derrigorrezkoa da zerrendan "erabilgarri" egotea. "**Erabilgarri**" jartzeko azken eguna abuztuaren 25a izango da, Partzuergoari egoera honen berri eman behar zaio faxez edo idatzi bat Partzuergoko egoitzan aurkeztuz, interesatuaren sinadura eraman behar duena.

Ukoa faxez bidaltzen dutenek faxaren berrespena gorde beharko dute, izan ere ukoa bidali dutenaren froga bakarria izango da. Ondorioz, faxaren berrespenik gabe ez da faxaren edukiaren inguruko erreklamaziorik onartuko.

Esleipen egunean ezin bazara joan eibarrera **boterea** egin ahal diozu lagun bati (atxikitzen dugu dokumentua). Dokumentuarekin batera N.A.Naren fotokopia eraman behar da.

Derrigorrezkoa da esleipinetara n.a.n eramatea eta datu pertsonaleko inprimakia betetzea.

Esleipetan zehaztuko da ze lanpostu **errelebu kontratuaren** bitartez beteko diren. Errelebu kontratua hartzen duenak esleipinetara Enplegu Publikoan inskribatua dagoenaren ziurtagiria (kartila) aurkeztu beharko du edota abuztuak 31 arte behin behineko kontratua indarrean izan behar du. Ez baditu baldintza hauek betetzen ezeztatuko zaio egin duen aukera.

Abuztuaren 27ko esleipenean 2008ko irailean sortutako lanpostuak eta 2008ko urrian eta azaroan zehar sortuko direnak eskainiko dira. Esleipenetan eman baina 2008ko irailaren lehen sortu ez diren lanpostuen kasuan, plaza bat lortzeko aukera duten hezitzaileek aldi baterako lanpostua izango dute beste ikastetxe batzuetan sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko, esleipenetan emandako plaza sortu arte. Partzuergoak ordaindu egingo ditu langileak egokitu zaion ikastetxetik ordezkapenak betetzeko joan behar duen ikastetxeetarainoko joan-etorriak.

Beste aldetik ere, sindikatuko zerbitzua errezteko asmoz **abuztuaren 18tik 24era zerbitzua zentralizatuta** edukiko dugula **Bilboko egitzan** telefono zenbaki honetan: 944706924. Gainera, abuztuaren 27an zuek laguntzeko asmoz Eibarreko esleipenetan egongo gara. Irailaren letik aurrera beti bezala 3 lurraldeko egoitzetan hasiko gara lanean.

Ondo pasa oporretan, atsedena eta indarrak hartu!!!

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org